


## **JOKALEKU BERRI BATEN BILA HERNANITIK**

### **EUSKARA HUTSEZKO HARREMANEI BIDE EMATEKO PROIEKTUAK**

- A- Kultur etxeko hainbat ikastaro euskaraz**
- B- Zerbitzu jasole euskaldunen erroldak**
- C- Udal barruko espedienteak**
- D- Beste administrazio batzuekiko harremanak**

## Kultur etxeko ikastaroetan egindako ibilbidea



## BEGIRALE ELEBIDUNA

(ikastaroak emango dituen enpresari hizkuntza betebeharrak jarri kontratazio garaian)



## IKASTARO BATZUK EUSKARAZ ESKAINI

### **Zein ikastaro eskaini euskaraz? irizpideak**

- Azken urteetan euskaraz dakiten partaideen kopurua altua izatea
- Ikastaroa ele bietan egiteko aukera izatea
- Hastapena izatea

## HERRITARREI HELARAZITAKO MEZUA(K)

Ez da diskriminatzailea

### **Euskaraz ondo ez dakitenei:**

-Ulertzea nahikoa da euskarazko ikastaroan parte hartzeko

-Zure euskara maila hobetzeko beste aukera bat da (euskaltegietatik kanpo eta eremu naturalean)

### **Euskaraz dakitenei:**

-Zure laguntza behar dute gutxiago dakitenek.

## ZERBITZU JASOLE EUSKALDUNEN ERROLDAK

### EGOERA

Udal zerbitzu batzuetako erabiltzaile kopuru mugatua.

#### **Zer egin du udalak?**

Idatzizko dokumentuak euskara hutsean jasotzera animatu. Galdetu.

#### **Non ditugu martxan?**

- .Musika Eskolan
- .Udal liburutegian
- .Haur eskolan
- .Jangelan

#### **Nora zabalduko ditugu?**

Kultur eta kirol elkarteetara

## c.- Udal barruko dokumentazioa

### **Arrazoia**

- 1.Fikziozko elebitasuna da: gaztelaniaz sortu eta euskarara itzulia gehienetan.
- 2.Euskaraz sortua bada ere, ele bitan jarri beharrak asko zailtzen du prozesua.
3. Ez du eragiten euskaraz irakurtzea.

### **Helburua**

Langileak hizkuntza bakarrean lan egitea.

### **Sistematikoki EZ itzultzea**

### **Onura**

Dokumentu gero eta gehiago euskaraz sortuak eta irakurriak.

### **Arriskuak**

Gaztelania hutsezkoa ugaritzea eta eragin negatiboa izatea.

### **Zailtasunak**

Euskara hutsezkoak jasole erdaldunak dituenean, irtenbidea bilatzea.

### **Irtenbideak**

Idatzizko laburpena eta ahozko adierazpena.

### **Ezinbesteko baldintza**

Jasole erdaldunen jarrera lantzea eta irtenbideak adostea.

**ARGUDIOAK** **ETA**  
**DISKURTSOAK ONGI LANTZEA.**

### **Orain**

Euskara hutsez bideratu daitezkeen dokumentuak identifikatzea.

Gaztelaniaz dauden dokumentu batzuk ez itzultzeko erabakia hartzea.

#### **d.- Beste administrazioekiko harremana**

Ahalegin seriorik ez dugu egin, baina bide bat egon daiteke egiteko: Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Aldundiarekin...elkarlanean.

ELI INSAUSTI  
KRISTINA KORELLA  
MALORES ETXEBERRIA